



2021–2024

Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana

**JARRAIPEN-
TXOSTENA**

2022. urtea

40
1983-2023

ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental



Herri-baltzua
Sociedad Pública del

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

**ENERGIAREN
EUSKAL ERAKUNDEA**
ENTE VASCO
DE LA ENERGÍA





AURKIBIDEA

1 Txostenaren xedea. Jarraipena egiteko metodologia	3
2 Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana 2021-2024	4
3 Plana burutzea. Ekintzak eta ekimenen aurrerapen-maila	7
4 Planaren aurrerapen-maila. Jarraipenaren adierazleak	23
5 Ondorioak	26

1 Txosten xedea. Jarraipena egiteko metodologia



Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Planaren Jarraipen Txostenaren* xedea da planaren beraren aurrerapen-maila ebaluatzea, desbiderapenak aztertzea eta neurri zuzentzaileak proposatzea.


Horretarako, jarduketa-ildoan 2022ra arte lortutako aurrerapenak berrikusiko ditu txostenak.

Ekimen bakoitzaren aurrerapen-maila azterketa multidimentsional bidez neurtzen da, honen arabera:

- **Burutze fisikoa** jarduketa-ildo bakoitza osatzen duten ekintzetan
- Adierazleen bidez **lortutako emaitzak**
- **Finantza-burutzea** aurrekontuaren arabera

Azkenik, aurrerapen-maila aztertuko da Planerako ezarritako **adierazleak eta helburu estrategikoak** betetzeari dagokionez.

* Planaren Gobernantza-ereduarekin bat, urteko jarraipen-txostena egingo da (2022 eta 2023), bai eta amaierako ebaluazio-txosten bat ere (2024).



Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana 2021-2024



Energia-trantsizioa eta klima-aldaketa euskal gizarteak osotasunean jorratu beharreko bi erronka dira, balizko inpaktu negatiboari aurrea hartzeko eta aurkezten diren aukerak aprobetxatzeko, ekonomia lehiakor batean sostengatuko den gizarte neutroa eta erresilientea osatzeko helburuarekin.



* Plana hiru ardatz estrategikotan eta bederatzi jarduketa-ildotan oinarrituta garatzen da, eta horiek guztiak 27 lan-eremutan banatzen dira.

Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana

2021-2024 **PLANAREN HELBURUAK**

**1**

**Berotegi-efektuko gasen
isurketak % 30 murriztea**

2

**EAEren klima-aldaketarekiko
erresilientzia bermatzea**

3

**Energia berriztagarrien kuota
amaierako energia-kontsumoaren
% 20 izan dadin lortzea**



Gainera, plana ezartzeak beste bi helburu lortzen lagunduko du.

+

Langabezia % 10etik behera murriztea

+

I+G Europako batez bestekoarekin bat egitea

2

Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana

2021-2024 EKIMENAK



2021–2024
Energia Trantsizioaren
eta Klima Aldaketaren
Plana

JARRAIPEN-
TXOSTENA
2022. urtea

	1. ARDATZA			2. ARDATZA		3. ARDATZA			
	1. Jarduketa	2. Jarduketa	3. Jarduketa	4. Jarduketa	5. Jarduketa	6. Jarduketa	7. Jarduketa	8. Jarduketa	9. Jarduketa
1. ekimena: Lurraldearen antolamendu eredugarria energia berriztagarriak garatzeko.	█								
2. ekimena: Euskadi nazioarteko erreferentea izatea ozeanoetako energien arloan.	█								
3. ekimena: Euskal industria energia eolikoaren abangoardian.	█								
4. ekimena: Eguzki-energia fotovoltaikoa etorkizun elektriko eta berriztagarri batean.	█								
5. ekimena: Euskadin hidrogenoa ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko ekosistema.	█								
6. ekimena: Mugikortasun jasangarria, epe laburreko beharra.	█								
7. ekimena: Eraikinen birgaitze energetikoa bultzatzea.	█								
8. ekimena: Ekonomia zirkularra eta klima-aldaketa txanpon beraren bi alde.		█							
9. ekimena: Karbono-hustubideak, klima-neutraltasunerako funtsezko pieza.			█	█					
10. ekimena: Euskal Natura 2000 Sare erresilientea, klima-neutraltasuna bultzatzen duena.			█	█					
11. ekimena: Kostaldeko herriak eta azpiegiturak, klima-aldaketaren erronkarako prest.				█	█	█	█		
12. ekimena: Naturan oinarritutako irtenbideak, udalerrien erresilientziarako berrikuntza-iturri.				█	█	█	█		
13. ekimena: Biztanleria klima-aldaketara egokitzeko eta bidezko energia-trantsiziorako prest.						█		█	
14. ekimena: Energia-trantsizioaren eta klima-aldaketaren binomioa, arau- eta plangintza-esparru berria.						█		█	
15. ekimena: Administrazio publikoa, energia-trantsiziorako eta euskal gizartearen erresilientziarako eredia.								█	█

*Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren 2021-2024 Planean, hamabost ekimen adierazgarriek 88 ekintza hartzen dituzte barne (EEK eta Ihobek bideratutakoak), eta horiek, guztira, hiru ardatz estrategiko eta bederatzi jarduketa-ildo osatzen dituzte.



1. EKIMENA

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU EREDUGARRIA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK GARATZEKO



2022. URTEAN GARATUTAKO EKINTZAK


Aurrerapena izan da Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialean (Energia berriztagarrien LPS): 2022ko amaiera aldera, planaren hasierako bertsio bat eman zen, eta Ingurumen azterketa estrategikoarekin batera izapidetuko da hasiera batean onesteko. Horri esker, energia berriztagarrien instalazioak jarri ahal izango dira modu antolatu eta jasangarrian, lurralde-antolamenduaren eta ingurumenaren esparruetan exijitutako betekizunak betetzeko, besteak beste.

ETORKIZUNeko EKINTZAK

- (1) Energia Berriztagarrien LPSren administrazio-izapidean aurrera jarraitzea.
- (2) 2024. urtean behin betiko onestea.

Aurrerapen-maila

1



Burutze fisikoa

0 Ekintza amaituta
3 Ekintza hasita/aurreratuta
Ekintza 1 hasi gabe

Ekintzak guztira

4

Finantza-burutzea

2021 EKITALDIA

Aurrekontua: 50.000 €
Betearazita: 6.120 €

2022 EKITALDIA

Aurrekontua: 100.000 €
Betearazita: 179.689 €

2. EKIMENA

EUSKADI NAZIOARTEKO ERREFERENTEA ENERGIA OZEANIKOETAN



2022. URTEAN GARATUTAKO EKINTZAK


Energia ozeanikoko prototipoekin saioak egiteko azpiegiturak izatea, hala nola BiMEP eta elektrizitatea sortzeko instalazio bat Mutrikun, eta une oro eguneratuta egotea garatzaileen beharrianetara: Mota horretako teknologiek in diharduen industria-sektorea aktibatzen jarraitu da, Euskadi nazioartean kokatzea saiatzeko.

ETORKIZUNeko EKINTZAK

- (1) Europewave proiektuaren garapenean aurreratzea.
- (2) Turbowave proiektuaren turbina berrien garapen kontzeptualeko faseko enpresa parte-hartzaileak hautatzea eta faseari ekitea.
- (3) Parte-hartzea aktiboa izatea EWTEC 2023n.

Aurrerapen-maila

12



Burutze fisikoa

0 Ekintza amaituta
6 Ekintza hasita/aurreratuta
0 Ekintza hasi gabe

Ekintzak guztira

6

Finantza-burutzea

2021 EKITALDIA

Aurrekontua: 1.500.000 €
Betearazita: 57.095 €

2022 EKITALDIA

Aurrekontua: 3.150.000 €
Betearazita: 966.145 €

3. EKIMENA

EUSKAL INDUSTRIA ENERGIA EOLIKOAREN ABANGOARDIAN



2022. URTEAN GARATUTAKO EKINTZAK

Euskal industria-sektoreak jarraitzen du jarduketak garatzen eta proiektuak garatzen berrikuntzako proiektuen esparruan, lurreko energia eolikoan zein itsasokoan. Jarraitu da aurrerapausoak ematen hiru parke eoliko izapidetzeko prozesuan, eta aurretiazko izapideak hasi dira lurreko azpiegitura eoliko berriak garatzeko.


Offshore delako energia eolikoaren esparruan, azpiegituraren oinarri den plataforma flotatzailea eraikitzeke lanak amaitu dira.

ETORKIZUNeko EKINTZAK

- (1) Energia eolikoa sustatzea Energia Berriztagarrien LPSrekin koordinatuta.
- (2) Itsas Eremuaren Antolamendu Planak onestea offshore parke eoliko bat martxan jarri ahal izateko.
- (3) Espero da plataforma eta SAITEC aerosorgailua BiMEPen ainguratzea, bertan proba batzuk egiteko.
- (4) Zimendatze flotatzaileen prototipo berriak erakartzea BiMEPera.
- (5) Euskal industria-sektorea garapen eolikoaren abangoardian mantentzea.

Aurrerapen-maila

13



Burutze fisikoa

0 Ekintza amaituta
6 Ekintza hasita/aurreratuta
0 Ekintza hasi gabe

Ekintzak guztira

6

Finantza-burutzea

2021 EKITALDIA

Aurrekontua: 0 €
Betearazita: 677.000 €

2022 EKITALDIA

Aurrekontua: 250.000 €
Betearazita: 511.663 €

4. EKIMENA

EGUZKI-ENERGIA FOTOVOLTAIKOA ETORKIZUN ELEKTRIKO ETA BERRIZTAGARRI BATEN AURREAN



2022. URTEAN GARATUTAKO EKINTZAK

2021. urtean, indarrean egon ziren laguntzen programei esker, martxan jarri ziren autokontsumo elektrikotako potentzia fotovoltaikoaren 19,6 MW 2022. urtean, 15,5 MW jarri ziren martxan.


Bestalde, eguzki-energia fotovoltaikoa sortzearen bidez komunitate energetikoen figura sustatzen ari den EKIOLA ekimena, zenbait eskualdetan. Gaur egun, 12 EKIOLA sortu dira: hamaika kontsumo-kooperatiba eta zerbitzuen kooperatiba bat, hain zuzen.

ETORKIZUNeko EKINTZAK

- (1) Eguzki-energia fotovoltaikoaren instalazioak sustatzea.
- (2) Sustatzeko bidean dauden komunitate energetikoak behar bezala ezartzen laguntzea.
- (3) Martxan jartzea 900 kW-eko potentzia izendatua duen instalazio bat.
- (4) Eguzki-instalazio fotovoltaikoak jartzea.

Aurrerapen-maila

14



Burutze fisikoa

0 Ekintza amaituta
3 Ekintza hasita/aurreratuta
0 Ekintza hasi gabe

Ekintzak guztira

3

Finantza-burutzea

2021 EKITALDIA

Aurrekontua: 5.000.000 €
Betearazita: 0 €

2022 EKITALDIA

Aurrekontua: 10.150.000 €
Betearazita: 53.858.539 €

5. EKIMENA

HIDROGENOA EKOIZTEKO, BANATZEKO ETA KONTSUMITZEKO EKOSISTEMA EUSKADIN



2022. URTEAN GARATUTAKO EKINTZAK

2022an, aurrera jarraitu du EEEK hidrogenoaren esparruan inbertitzeko proiektuak garatzeko prozesuak Proiektuak Hidrogenoaren Euskal Korridorearen (BH2C) markoan daude Gainera, askotariko ekintzak gauzatu dira ekimen horren posizionamenduari begira.


Bestalde, EEEK martxan jarri du enpresetan eta eraikinetan hidrogenoaren inguruko proiektuak diruz laguntzeko bere lehenengo neurria, Estatuan eta Europan dauden programak osatze aldera.

ETORKIZUNeko EKINTZAK

- (1) Hidrogeno-ekosistema bat sortzea sustatzeko ekintzetan aurrera jarraitzea.
- (2) Instalazio txikiak eta ertainak sustatzea EEEKen dirulaguntzen programaren bidez.
- (3) Bilboko Portuan hidrogenoa elektrolisi bidez produzitzeko proiektua garatzen jarraitzea.
- (4) Mugikortasunerako hidrogenoa banatzeko eta emateko sistema logistikoaren proiektuan aurrera jarraitzea.

Aurrerapen-maila

15



Burutze fisikoa

0 Ekintza amaituta
6 Ekintza hasita/aurreratuta
0 Ekintza hasi gabe

Ekintzak guztira

6

Finantza-burutzea

2021 EKITALDIA

Aurrekontua: 0 €
Betearazita: 0 €

2022 EKITALDIA

Aurrekontua: 1.100.000 €
Betearazita: 0 €

3 Plana burutzea

EKINTZAK ETA EKIMENEN AURRERAPEN-MAILA



6. EKIMENA

MUGIKORTASUN IRAUNKORRA, EPE LABURREKO BEHARRA



2022. URTEAN GARATUTAKO EKINTZAK

Bi erronka nagusi daude ibilgailu elektriko bat erosteko erabakiaren inguruan: teknologia berrien inguruko ezagutzarik eza eta hasiera batean ohiko ibilgailuetan baino inbertsio handiagoa egin behar izatea. Beharrezkoa da hasierako gainkostua murrizten duten laguntza-programak martxan jartzea ibilgailu elektrikoak erostearekin lotutako hasierako oztopoa ezabatzeko.


MOVES III laguntzen programak Euskadiko mugikortasun elektrikoa sustatu du. Horrez gain, mugikortasun elektrikorako euskal estrategia onesteak eragin nabarmena izango du balio erantsian, enpleguan, enpresa-lehiakortasunean eta berrikuntzan.

ETORKIZUNeko EKINTZAK

- (1) Gizarteak eta erakundeek mugikortasun elektrikoarekiko duten sentsibilitatea areagotzea
- (2) Automobilgintzan eta ibilgailu elektrikoak kargatzearen esparruan proiektu teknologikoak sustatzea.
- (3) Karga azkar eta ultraazkar egiteko azpiegituraren ezarpena sustatzea.

Aurrerapen-maila

16



Burutze fisikoa

0 Ekintza amaituta
6 Ekintza hasita/aurreratuta
0 Ekintza hasi gabe

Ekintzak guztira

6

Finantza-burutzea

2021 EKITALDIA

Aurrekontua: 6.000.000 €
Betearazita: 2.985.792 €

2022 EKITALDIA

Aurrekontua: 6.000.000 €
Betearazita: 25.998.481 €

7. EKIMENA

ERAIKINEN BIRGAITZE ENERGETIKOA BULTZATZEA



2022. URTEAN GARATUTAKO EKINTZAK


Eraikinen birgaitze energetikoak aurrerapauso positiboak ematen jarraitu du laguntzen programei esker (PREE, PREE 5000, ...), bai eta eraikinen egiaztatze energetikoari, ITE ikuskatze teknikoei zein auditoretza energetikoei eta telefono bidez zein birgaitzeko bulegoen bidez laguntzak kudeatzeko emandako laguntzari esker ere.

ETORKIZUNeko EKINTZAK

- (1) Dauden eraikinen parkearen birgaitze energetikoa sustatzen jarraitzea laguntzen programen bidez.
- (2) Energia-ziurtagiriak, ikuskatze teknikoak eta auditoretza energetikoak egiteko eta erregistratzeko kontrol- eta jarraipen-zerbitzuak mantentzea.
- (3) Laguntza teknikoa emateko bitartekoei eta birgaitzeko bulegoei laguntzen jarraitzea.

Aurrerapen-maila

17



Burutze fisikoa

0 Ekintza amaituta
 6 Ekintza hasita/aurreratuta
 0 Ekintza hasi gabe

Ekintzak guztira

6

Finantza-burutzea

2021 EKITALDIA

Aurrekontua: 22.000.000 €
 Betearazita: 52.746.339 €

2022 EKITALDIA

Aurrekontua: 30.000.000 €
 Betearazita: 5.850.119 €

3 Plana burutzea

EKINTZAK ETA EKIMENEN AURRERAPEN-MAILA



2021–2024
Energia Trantsizioaren
eta Klima Aldaketaren
Plana

JARRAIPEN-
TXOSTENA
2022. urtea

8. EKIMENA

EKONOMIA ZIRKULARRA ETA KLIMA ALDAKETA TXANPON BERAREN BI ALDE



2022. URTEAN GARATUTAKO EKINTZAK

2021ean eta 2022an hamasei enpresa sartu dira Basque Ecodesign Center delakoan, eta elkarlaneko 50 proiektu baino gehiago sortu dira. Prestakuntzaren arloan, 500 gaztek baino gehiagok izan dute ekonomia zirkularraren inguruko prestakuntza Circular HUB delakoaren bidez, eta ikastaroak eman dira PYME Circular Euskadi ekimenaren bitartez. Martxan da enpresetan proiektuak garatzeko lehenengo deialdia. Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren ordena berria garatu da eta barne hartutako ekipamenduak eguneratu dira; zaharkitutakoak kendu dira eta berriak sartu, eta izapidetzeko agindu berri bat prestatu da.


Hondakinen esparruan, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak eta etxeko hondakinen errausketako zepak amaitzeko bi dekretu idatzi dira, eta izapidetzen ari dira. Elikagaien alferrikako galera zenbatzeko metodologia bat garatu da.

ETORKIZUNeko EKINTZAK

- (1) Jarraituko da Basque Ecodesign Center-en proiektu berritzaileak garatzen, eta beste enpresa handi bat sartuko da.
- (2) Basque Circular Hub-en egoitza berri bat irekiko da Gipuzkoan, eta lanean dauden profesionalen prestakuntza sustatuko da gai berrien bidez, hala nola taxonomia eta karbonizazioa.
- (3) Prestakuntzako bost programa berri garatuko dira gazteentzat, bai eta enpresako proiektu bat ere.
- (4) Zirkularrak ekimenaren lau erakusketa berri antolatuko dira eta Euskadin egindako Produktu Zirkularren katalogoa editatuko da
- (5) Manufaktura, plastikoak eta eraikuntza arloetako ibilbide-orriak diseinatzeko lan-taldeak egingo dira
- (6) Hondakinen kanon bat ezarriko da.

Aurrerapen-maila

18



Burutze fisikoa

0 Ekintza amaituta
5 Ekintza hasita/aurreratuta
1 Ekintza hasi gabe

Ekintzak guztira

6

Finantza-burutzea

2021 EKITALDIA

Aurrekontua: 17.500.000 €
Betearazita: 19.500.000 €

2022 EKITALDIA

Aurrekontua: 4.500.000 €
Betearazita: 6.880.744 €

3 Plana burutzea

EKINTZAK ETA EKIMENEN AURRERAPEN-MAILA



2021–2024
Energia Trantsizioaren
eta Klima Aldaketaren
Plana

JARRAIPEN-
TXOSTENA
2022. urtea

9. EKIMENA

KARBONO-HUSTUBIDEAK KLIMA-NEUTRALITASUNERAKO FUNTSEZKO PIEZA



2022. URTEAN GARATUTAKO EKINTZAK

Irizpideak garatu dira karbono-aztarnaren, murrizketen eta konpentsazioen erregistroa eratzeko, bai eta konpentsazio-sistemen egoeraren analisi bat ere. Eguneratu da xurgatzeen kalkulagailua eta berori erabiltzeko eskuliburua. Ikerketak egiten ari dira EAEko lurzoruan dagoen karbono organikoaren mapa eguneratzeko.


UrbanKlima 2050en barruan, basotzeko jarduerak egiten ari dira, degradatutako eremuetan, bereziki, hala nola Bermeoko Atlantikoko isurialdean. Horrez gain, Donostiako zenbait zona berreskuratzeko eta berriz naturalizatzeko lanak ere egiten ari dira, bai eta Araban ere Natura 2000 Sareko galeria-basoetan, eta martxan jarri dira mendi publikoak basotzeko, hezeguneak berreskuratzeko eta abarrerako proiektuak.

ETORKIZUNEKO EKINTZAK

- (1) Trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari buruzko ekimenen euskal erregistroa eratzea.
- (2) Tokiko jasangarritasunaren eta berrikuntzaren laguntzen deialdiak egitea, hustubideak barne.

Aurrerapen-maila

19



Burutze fisikoa

- 2 Ekintza amaituta
- 3 Ekintza hasita/aurreratuta
- 1 Ekintza hasi gabe

Ekintzak guztira

6

Finantza-burutzea

2021 EKITALDIA

Aurrekontua: 957.476 €
Betearazita: 957.476 €

2022 EKITALDIA

Aurrekontua: 957.4760 €
Betearazita: 700.000 €



10. EKIMENA

EUSKAL NATURA 2000 SARE ERRESILIENTEA, NEUTRALITASUN KLIMATIKOA BULTZATZEN DUENA



2022. URTEAN GARATUTAKO EKINTZAK

Klima-ikuspegi integrala barne hartzen duten tresnak garatu dira Natura 2000 Sarea Kudeatzeko Planetan, klima-aldaketak Euskadiko natura-ondarean dituen eraginei buruzko diagnostikoa egitea errazteko.


Martxan jarri dira klima-arriskuaren ikuspegia barne hartzen duten proiektu pilotuak Aizkorri-Aratz eta Aralar Kudeatzeko Planetan eta Txingudiko badian egokitzeko lanak hasi dira degradatutako espazioak berriz naturalizatzeko, karbono-gordailuak areagotzeko eta mugako gertakarien zein itsas mailaren igoeraren ondoriozko uholdeak murrizteko helburuarekin.

ETORKIZUNeko EKINTZAK

- (1) Karbono Urdina xurgatzeko potentziala identifikatzea eta aztertzea.
- (2) Txingudiko badian berreskuratzeko jarduketak jarraitzea.

Aurrerapen-maila

10



Burutze fisikoa

2 Ekintza amaituta
5 Ekintza hasita/aurreratuta
2 Ekintza hasi gabe

Ekintzak guztira

9

Finantza-burutzea

2021 EKITALDIA

Aurrekontua: 399.476 €
Betearazita: 399.476 €

2022 EKITALDIA

Aurrekontua: 399.476 €
Betearazita: 450.000 €

11. EKIMENA

KOSTALDEKO HERRIAK ETA AZPIEGITURAK, KLIMA-ALDAKETAREN ERRONKARAKO PREST



2022. URTEAN GARATUTAKO EKINTZAK

Itsas maila igotzearen arriskuaren, olatuen eta orientazioen zaurgarritasunaren azterketa bat egin da klima-aldaketara egokitzeko, eta dagokion kartografia sortu da. Gainera, portuko azpiegituretan eta eremu zaurgarrietan dauden arriskuei buruzko txostenak egin dira, eta kostaldeko eta ibaiko uholde-arriskua murrizteko proiektuak bultzatzen ari dira.

Monitorizazioaren esparruan, bideo-kameren irudiak automatikoki trukatzeko eta aztertze sistemak bat ezarri da, itsas portuetako eta hondartzetako olatuen gainezkatzak kalkulatzeko. Sistema hori Larrialdi eta Klimatologia Sailaren arriskuen zaintza- eta prebentzio-sisteman integratu da.


Itsasertzeko LPS eguneratzeari dagokionez, aurrerapenari buruzko dokumentua egin da, behin betiko plana egin eta izapidetu aurretik.

ETORKIZUNeko EKINTZAK

- (1) Irizpideak eratu dira itsasertzeko arriskua Hiriko Planteamenduan sartzeko.
- (2) Itsasertzeko Lurralde Plan Sektoriala onesteko izapidetu da.

Aurrerapen-maila

11



Burutze fisikoa

3 Ekintza amaituta
4 Ekintza hasita/aurreratuta
1 Ekintza hasi gabe

Ekintzak guztira

8

Finantza-burutzea

2021 EKITALDIA

Aurrekontua: 3.312.259 €
Betearazita: 3.024.865 €

2022 EKITALDIA

Aurrekontua: 3.092.259 €
Betearazita: 2.738.829 €

12. EKIMENA

UDALERRIEN ERRESILIENTZIARAKO BERRIKUNTZA-ITURRI IZATEAN OINARRITUTAKO IRTENBIDEAK



2022. URTEAN GARATUTAKO EKINTZAK

Naturan oinarritutako soluzioak (SbN) katalogatzeko eta azpiegitura berdeak mapatzeko proiektu pilotuak egin dira, bai eta ingurunea lehengoratzeko beharrezko jarduketak ere.

Martxan jarri dira soluzio naturalei lotutako askotariko ekimenak UrbanKlima 2050 proiektuaren bidez.


Dirulaguntzen bidez sustatu da hirigunean azpiegitura berdeak eta urdinak sartzea, plazetan zein kaleetan eta ekipamenduetan (eskolak), bai eta aldirietako eremu antropizatu eta degradatuetan ere.

ETORKIZUNeko EKINTZAK

- (1) Naturan Oinarritutako Soluzioak kategoriatan banatzea.
- (2) Irizpideak ezartzea horiek egokitzeko soluzio gisa integratzeko.

Aurrerapen-maila

12



Burutze fisikoa

0 Ekintza amaituta
4 Ekintza hasita/aurreratuta
1 Ekintza hasi gabe

Ekintzak guztira

5

Finantza-burutzea

2021 EKITALDIA

Aurrekontua: 1.195.513 €
Betearazita: 1.195.513 €

2022 EKITALDIA

Aurrekontua: 1.195.513 €
Betearazita: 1.065.000 €

3 Plana burutzea

EKINTZAK ETA EKIMENEN AURRERAPEN-MAILA



2021–2024
Energia Trantsizioaren
eta Klima Aldaketaren
Plana

JARRAIPEN-
TXOSTENA
2022. urtea

13. EKIMENA

BIZTANLERIA KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEKO ETA BIDEZKO ENERGIA TRANTSIZIORAKO PREST



2022. URTEAN GARATUTAKO EKINTZAK

Ekintzak gauzatu dira herritarrak kontzientziatzeko eta mobilizatzeko AsteKlima astearen bitartez. Udalsarea 2030 sarearen bidez Alkatetzen ituna sustatzeko estrategia garatzen ari da, eta barne hartzen ditu energia-trantsizioko eta klima-aldaketako lan-taldeak.

Erreminta Gida delakoa garatu da Energia eta Klima Planak egiteko, bai eta udalenzako tresnak eta baliabideak ere. Tokiko klima-berrikuntzako proiektuetan ere lagundu da


UrbanKlima projektuan, herritarren ahalduntzeari lotuta, diagnostiko bat egin da, 230 eragile identifikatu dituena, eta 50 arrakasta-kasu dituen datu-base bat ere eratu da. Halaber, martxan jarri dira askotariko ekintza pilotuak, hala nola elektrizitatea hornitzeko sareak klima-arriskuen aurrean duen sentsibilitatearen analisia, mugikortasun elektrikoaren inguruko ikerketa bat, oinezkoen mugikortasuna eta bizikletazkoa sustatzea eta energia berriztagarrien instalazioetako proiektuak garatzea.

ETORKIZUNeko EKINTZAK

- (1) Herritarrak mobilizatzeko AsteKlima kanpainak.
- (2) Laguntzak tokiko egokitzapeneko ekintzetarako eta eko-berrikuntzarako.

Aurrerapen-maila

13



Burutze fisikoa

1 Ekintza amaituta
6 Ekintza hasita/aurreratuta
0 Ekintza hasi gabe

Ekintzak guztira

7

Finantza-burutzea

2021 EKITALDIA

Aurrekontua: 2.249.263 €
Betearazita: 2.329.263 €

2022 EKITALDIA

Aurrekontua: 2.249.263 €
Betearazita: 2.620.000 €

14. EKIMENA

ENERGIA TRANTSIZIOAREN ETA KLIMA ALDAKETAREN BINOMIOA, ARAU-ESPARRU ETA PLANIFIKAZIO-ESPARRU BERRIA



2022. URTEAN GARATUTAKO EKINTZAK

2022an zehar, Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren legearen aurreproiektua gin da eta martxan jarri da laguntzeko-tresnak, ibilbide-orria eta Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Estrategia egiteko taldea, zeinen zirriborroak garapen-fasean baitaude.

Bestalde, klima-gobernantzarako eredu berriak diseinatu dira eta UrbanKlima 2050 proiektuaren esku hartzeko hiru mailetarako aztertu eta berrikusi dira, hauetarako, zehazki: kostaldea, arro hidrografikoa eta hirikoa zein hiri-periferiakoa.


Gainera, karbono-aztarna kalkulatzeko tresnak berrikusi eta hobetu dira.

ETORKIZUNeko EKINTZAK

- (1) Izapidetzea eta abian jartzea Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legea, eta 2050erako ibilbide-orria zein 2030erako estrategia egitea.
- (2) Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren Legearen tresnak definitzea eta prestatzea.

Aurrerapen-maila

14



Burutze fisikoa

0 Ekintza amaituta
 5 Ekintza hasita/aurreratuta
 0 Ekintza hasi gabe

Ekintzak guztira

5

Finantza-burutzea

2021 EKITALDIA

Aurrekontua: 431.036 €
 Betearazita: 431.036 €

2022 EKITALDIA

Aurrekontua: 431.036 €
 Betearazita: 365.000 €

15. EKIMENA

ADMINISTRAZIO PUBLIKOA, ENERGIA TRANTSIZIORAKO ETA EUSKAL GIZARTEAREN ERRESILIENTZIARAKO EREDUA



2022. URTEAN GARATUTAKO EKINTZAK

Laguntzen programa bat abian jarri da EAEko toki-administrazioen eraikinetan eta instalazioetan energia berriztagarriak erabiltzea eta efizientzia energetikoa bilatzea xede duten ekintzak identifikatzeko eta sustatzeko.

Erosketa eta kontratazio berdearen esparruan, ikerketa bat egin da klima-aldaketaren eta Euskadiko kontratazio publiko berdearen egoerari buruz, irizpideak garatu dira klima-aldaketaren kontzeptua integratzeko obra hidraulikoetan, ibilgailuetan, eraikuntzan eta barneko argiztatzean, eta eguneratu dira paisaiei eta espazio berdeei buruzko irizpideak.


Bestalde, tresna bat garatu da irizpide jasangarriak dituzten zerbitzuak eta produktuak erostetik eratorritako ingurumenaren hobekuntza neurtzeko, eta laguntza eman zaie askotariko erakundeei pleguetan ingurumen irizpideak txertatzeko.

ETORKIZUNeko EKINTZAK

(1) Creación Lan-taldeak eratzea erosketen inguruko irizpideak sortzeko (Eusko Jaurlaritzan, obrak eta eraikuntza eta erosketa-programari atxikitako erakundeak), klausulak sartzeko jarraibideak sortzea, jardunaldiak egitea eta obretan bigarren-mailako materialak sartzeko gida bat sortzea.

Aurrerapen-maila

15



Burutze fisikoa

0 Ekintza amaituta
5 Ekintza hasita/aurreratuta
0 Ekintza hasi gabe

Ekintzak guztira

5

Finantza-burutzea

2021 EKITALDIA

Aurrekontua: 830.513 €
Betezaz: 1.384.258 €


2022 EKITALDIA

Aurrekontua: 830.513 €
Betezaz: 1.561.530 €

EKINTZAK BURUTZEA

EKINTZEN BURUTZE-MAILAREN JARRAIPENA		
HASI GABE	8	%9
HASITA	17	%19
AURRERATUTA	55	%63
AMAITUTA	8	%9
GUZTIRA	88	%100


Ekintzak burutzeko aurrerapen-maila



FINANTZA-BURUTZEA

FINANTZA-BURUTZEA	PLANAREN AURREKONTUA	BETEARAZITA	AURRERAPEN-MAILA
2021. URTEA	61.425.536 €	85.694.234 €	%140
2022. URTEA	64.355.536 €	103.745.739 €	%161
2021-2022 ALDIA	125.781.072 €	189.439.973 €	%151
GUZTIRA 2024	309.592.144 €	-	%61

Finantza-burutzea



4

Planaren aurrerapen-maila. Jarraipena adierazleak

ARDATZ ESTRATEGIKOEN AURRERAPEN-MAILA



ARDATZAK	ARLOAK	AURRERAPEN-MAILA
1. ARDATZA NEUTRALITASUNERAKO BIDEA	Energia berriztagarriak, hidrogeno berdea, mugikortasun jasangarria, eraikinen birgaitze energetikoa, ekonomia zirkularra eta xurgapenak.	%46
2. ARDATZA ERRESILIENTZIA AREAGOTZEA	Klima-aldaketa Natura 2000 Sarean, euskal kostaldearen erresilientzia eta hiriguneei lotutako soluzio naturalak.	%51
3. ARDATZA ENERGIA-TRANTSIZIOAREN ETA EKINTZAREN ZEHARKAKOTASUNA	Energia-trantsizioaren eta ekintzaren zeharkakotasuna.	%50

4

Planaren aurrerapen-maila. Jarraipena adierazleak

PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN AURRERAPEN-MAILA



ARDATZA	HELBURUA	OINARRIZKO BALIOA 2020an	GAUZATZE-MAILA 2022an	BALIO OBJEKTIBOA	HELBURUEN AURRERAPENA
1.	Berotegi Eftukoa Gasen emisioak gutxitzea 2005. urtearekin alderatuta	-%35	-%31*	-%30	
2.	EA Eren klima aldatetarekiko erresilientzia bermatzea (aurreikusitako ekimenen betearazpena)	%0	%52	%80	
3.	Energia berriztagarrien kuota (azken kontsumoarekin alderatuta)	%16,9	%13,4	%20	

*Eskura daitekeen azken datua, 2021ekoa.

Berdea: Aurrerapen esanguratsuak. **Horia:** Aurrerapen nahikoak. **Gorria:** Aurrerapen eskasak.


Energía berriztagarrien kuotak behera jo du 2022n hainbat arrazoiengatik: ziklo konbinatuko zentralen bidezko elektrizitate-ekoizpena handitzea, ekoizpen hidroelektrikoa gutxitzea eta bioerregaien erabilera gutxitzea.

4


Planaren aurrerapen-maila. Jarraipena adierazleak




Ekintzak burutzeko aurrerapen-
maila



Finantza-burutzea



Emaitzak lortzea



Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren 2024 Plana gaur egun burutze-aldiaren erdian dago eta **planifikatutako ekintzen % 91 jarri da martxan**.

Halaber, orokorrean, ekintzak **burutzeko aurrerapen-maila % 49koa** da, eta, horretarako, **urrekontuaren % 61** erabili da. Era berean, adierazleen bidez ezarritako **emaitzen % 33 ere lortu** dira.

2021 2022 2023 2024



Azkenik, Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Planaren jarraipenean 2021-2022 aldian lortutako datuetatik ondoriozta dezakegu behar bezala jardun dela eta ekintza egokiak egikaritu direla Euskadin energia integratzeko eta klima-aldaketaren eragina murrizteko zein lurraldea egokitzeko.

Plana ezartzearen harira, oztopoak eta eragozpenak egon dira ekintzetako batzuk egikaritu ahal izateko. Hala gertatu da 5, 7, 8, 12, eta 15. ekintzekin; izan ere, ekintzak egite hasi arren, aurrerapen-maila % 45 baino gutxiago izan da. Hala ere, Plana epe laburrerako izan denez, espero ziren emaitzak lortzeko neurriak ezarri ahal izan dira.

Planaren finantza-burutzearen harira, ikusi da modu eraginkorrean banatu dela aurrekontua; izan ere, helburuak modu zuzenean bete dira ekintzak egikaritu diren heinean.





2021–2024

Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana

**JARRAIPEN-
TXOSTENA**

2022. urtea

40
1983-2023

ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental



Herri-baltzua
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

ENERGIAREN
EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO
DE LA ENERGÍA

